

# GIPUZKOAKO GIZONAK



## II

Alzo-azpiko Erriak ere badu seme bat emen ezarriko ditudan-en aldetik ezpadere chit oroigarria berez dituen doaiakgaitik; seme au da Joakin de Eleizegi, zeña jaio zan milla zortzi eun, emezortzi-garren urteko uztaillaren amargarren egunean; eta gaurko egunean luzetasunean da zazpi oñ eta zortzi onza; eta pisuan dauka amabost arroba. Ibi-lli da Españako, Portugalko, eta Franziako Erresuma osoetan, eta ez du arkitu bat bakarrik alderatzekorik ez ezik galtzarbeaz gora igarotzen zaionik ere; argatik legez ta bidez ifini diote *Erraldoi Euskaldunaren* izengaña. Aurkeztu da izendatu diran iru Erresumaeteko Errege, Erregiña, eta beren jatorrikoetara, zeintzuk osterontzeko ikusi dabeen guztiakin batera arritu dira beraren anditasun oi-ezbezalakoaz; andia izateaz landara, gai eta alde guztietara da chit egokia, zuzena, eta ondo egiña.

Amasako Errian Larrea deitzen zaion eche lenengoetako seme ta jaun ta jabe Jil Lopez de Oñaz bulardetsuak zortzi eun Gipuzkoatarrekin, Nafar ta Franzes talde andien kontra irabazi zeban Beotibarko battalla gogoangarria, lenago amaikagarren kapituluan zearo ezarria dagoen bezala.

Amezketako jatorri bat Gipuzkoan jaioa izena Juan de Amezketa zebana, milla laurean ogei ta amargarren urtean Inglaterratik Embajadore etorri zan Errege on Juan bigarrenarengana. Gipuzkoatar onek berari zegokion bizimodu bidezkoa zeukan Inglaterran, Kondairak esa-

ten debanez; eta Espāñara aiñ ondra andiko eginkizunera biraltzearekin dakusku argiroki, Inglaterran gizon esleitua zala.

**Andoaingo** semea zan Aita Larramendi gogoangarria, zeñak ager-taratu izan zituen Euzkarazko itzcuntz ederraren Gramatika, Itztegia, eta beste gauza anitz gai oni dagozkionak, etsai ozpindu char askoren esker gaiztoan alere.

Erri bereko seine argidotar on Juan Bautista de Erro izanik jaiotzako itzcuntz gozoari amodio andia diona, azuldu ditu bi liburu, bata *Alfabeto primitivo*, eta bestea *El mundo primitivo-ren* izenarekin, zeintzubetan ikusten dan argi eta garbi gure Euskara jakintsua bere gazte denporako janzi eder aberatsakin chukunki apaindurik lendabiziko egunetan zan bezin mardul, lirain, ta pizkor.

**Asteasuko** semea zan Aita Julian de Lizardi Jesuita, zeñak Kristau fededunen erlijio Santua gordetzeagatik bere bizia galdu zeban Paraguay-en non Mairuai Ebanjelioa predikatzen ari zala, ill zuten berak gezia edo saetakin.

IZTUETA



# GIPUZKOAKO GIZONAK



## III

**Ayako** Erriak seme buru oneko anitz eman izan ditu; oen artean ezagungarriena izan da kapitan Machin de Aya bere balore andi eta ondradutasunaren bidez, zeñaren eguinbide prestuak goratu izan dituzten arrotzetarañoakoak; begiratzea dago, bada, Paulo Joviok Hugo de Monkada-z itzegitean zer esaten daben, non ikusten diran argiroki beraren egikera balioso eta gizabide andiak.

Erri bereko seme Martin Arana de Echaniz, kapitana, bere leialtade eta errutasunaren bidez ezagungarritua izan zan Felipe irugarrenaren serbitzoan zebilela; zeñaren Majestadea demborale guztiz otz eta chit euritsuan lagundu zeban Errenteriatik Ondarribiara, biderik charrenetan bizkarrean eramatea eskintin ziola. Ayako beste seme asko izan dira leialtadean, arma-etan, eta ondradutasunean, gañen gañenekoak.

**Azkoitiko** Erri gozatsuan jaio izan dira seme argidotar anitz arma eta letra-etarako. Guztien artean agirikoenak izan dira Idiakez-ko eche Purubetarren jaun ta jabe eta jatorriak, zeintzube beren egikera andien bidez deituak izandu diran jarlekurik goienengoetara. On Pedro Idiakez egon izan zan Errege Fededunen Ganbarako idukitegiaren zaintzalle nagusi (1), zeñari, bere leialtade pin eta serbitzo andien sa-

---

(1) Errege Fededunen Ganbarako idukitegiaren zaintzalle nagusi. *Reposterio mayor de la Cámara de los Reyes Católicos.*

ritzat, eman ziozkaten iru bizialdirako Alkatetza Sayaz-koa, Gipuzkoa-ko Escribani nagusia, eta beste zenbait eskubide. Gizon gogoangarri au ill zan Napoles-ko Errusuman, milla bosteun ta seigarren urtean. Onen anaia on Domigo Erresuma berean egondu zan Brindis-ko Arzo-bispo.

Felipe bigarren eta irugarrenaren denporan on Martin Idiakez egondu zan *Secretario de Estado* eta beraren osaba on Juan Zuazola Azkoitiko seme Obispo Astorgan zegoena, ill zanean, egin zan Yarza eta Alzega-ko eche aide nagusietako jaun ta jabe.

On Juan de Idiakez, Duke de Granada de Ega, Martizti errealetako Jenerala, izan zan Fernando seigarrenaren gorputz ta gela-zaintzalle, bera lenen edo Principe zala.

Dukearen anaia on Tomas izandu zan tropa errealetako Teniente Jeneral, eta Andaluziako itsasalde-etako Kapitan Jeneral, zeñak egin zan zituen serbitzo andiak.

Zuazolako eche argidotarrak orobat eman izan ditu gizon baleroso jakintsu anitz, eta batez ere on Lorenzo de Zuazola, zeña Pilipinaetako armadaren Jeneral zala, ill zan doakabero.

On Tomas de Larraspuru jaio zan Azkoitian milla bosteun laurogei ta bigarren urteko abenduko illaren ogei ta amargarren egunean, zeña izandu zan India-etara bideko gortedadiaren Kapitan, eta ill zan milla sei eun ogei ta amabigarren urtean.

Azkoitiko Erriaren, Probinzia Euskaldunen eta España guztiaren ondra ta gloriarako jaio zan Erri onetan milla zazpieun ogei ta bederatzigarren urteko urri-illaren ogei ta irugarren egunean on Franzisko Javier de Munibe ta Idiakez Konde de Peñaflorida, Euskaldun Laguntza Errealaren lendabiziko ipinle ta zuzendari betikoa (1); ill zan berrogei ta amabost urteko adinean arkitzen zala, milla zazpi eun laurogei ta bostgarren urteko ilbeltzaren amairugarren egunean, eta izandu zan lurperatua Markinako Erriaren Eliza nagusian, zeñaren jaun ta godartari bera zan.

Bere jaiot-erriarion amodio gartsuak, lagun urkoa doatsueraz betetzeko zeban naitasun izekiak, jakintza onbidezko anitz ondorengoai

---

(1) Euskaldun Laguntza Errealaren lendabiziko ipinle ta zuzendari betikoa. *Fundador y primer director perpetuo de la Real Sociedad Vascongada.*

erakutsi naiak, nekeaz oroitu ere bage lanean jarduteko zeban jaiera andiak, beraren argitasun eta *estudio* paregabeak, eta osterontzeko doain eder gizonagan arkitu-al leizkeanakin ondo janzia zalako, Konde de Peñafloidaren izen andia goienengo mallara igo izan dabee Dierria arrotzetarañoakoak, eta *Soziedade Matritense*, ta Euskal-errikoak doaindu dute asko beraren oroitpen argidotarra.

IZTUETA.



# GIPUZKOAKO GIZONAK



## IV

Azpeitiako Errian ezagutu dira bertan jaiotako seme gogoangarri anitz, beren oroipena egitea merezi dutenak. Erri onetako jaiotar Nicolas Saez de Elola izandu zan Kapitan, eta ezagungarritu zan asko Peruko irabazkida edo konkistan. Azpeitiko Elizan arkitzen da kapilla bat bere kapillau, kantari, organo, zillar eta apaindurakin gizon argidotar onek ifinia.

Eliza bereko beste Kapilla batean daude Erri onetako seme on Martin de Zurbano Tuy-ko Obispo eta Inkisizioko Agintari nagusi izandakoaren ezurrak atsedeten, zeña ill zan Madrillen milla bosteun ta amasei garren urtean.

On Juan de Uranga Erri onetako semea Obispo Kuban zegoela ill zan milla, bosteun, berrogei ta amaseigarren urtean.

On Fr. Martin Ignazio de Loyola, San Ignazioaren illoba, erlijioso, Franziskoa, Obispo izan zan aurrena Paraguay-en, eta gero Arzobispo Charkas-en.

On Jose Franzisko de Emparan izan zan Martizti errialetako Teniente Jeneral, eta Kanarias-etako aditzaña Erregezkoan Komandante Jeneral ta Dianagusia. Beraren anaia on Fr. Sebastian de Emparan, bi aldiz egon zan Priore Eskorial-en, eta azkenean Obispo izan zan Urjel-en.

On Jose de Iturriaga izan zan Gipuzkoako alkarkida Karaskoaren lenengo zuzendari, eta Eskuadrako Buruzari; zeñak bere eginkizun an-

diai kobru ondo emateaz landara diabetatu izan zituen toki asko Orinoko ibai inguruan,

Azkenik, Azpeitiko Loyolan jaioa zan Aita San Ignacio ill-ekorra eta bera bataiatu zan Ponteoa ondo gordea arkitzen da zillaresko chapaz guztia estalia. Santu glorioso onen izen gozoa eta beraren mirari andiak, mundu osoak daki dirala adigarriak.

Beasaingo Errian, diotenez, jaio zan San Martin de Loinaz milla bosteun irurogei ta seigarren urteko uztaillaren amaseigarren egunean, eta martirizatu zuten Japon-go Ugarte-etan Nangazaki izendatzen dan Urian milla bosteun laurogei ta amazapigarren urteko otsaillaren bostean, eta Urbano zortzigarrenak Santuen artean ifini eda kanonizatu zeban milla seieun ogei ta zazpigarrenean. Geroztik beneratzen da, Amunarro deitzen dan jaiot-eche berarenean milla seieun ogei ta amirugarren urtean berariaz artarako egiñeratu zan Kapillan, eta Probinziak bere gastuz eche aren aurrean eragin zeban Elizachoan.

IZTUETA.



# GIPUZKOAKO GIZONAK



## V

**Zestoako** semea zan on Juan Perez de Gebara y Alzolaras ospat-sua, zeñak egin izan zituen amar urteren epean azaña ta irabazkida anitz Chachapoya, eta Moyabamba-ko Probinzia-etan; eta berak diabetatu ere zeban Santiago de los Balles-ko Uria Kapitan Jenera-ren izenean.

**Debako** Erriak izan ditu seme gogoangarri anitz, zeintzuben artean ezagungarrituena dan Andia Irarrazabal-en jatorria. Odol garbiko sustrai ezadetsu onek eman ditu gizon asko arma-etarako Españan ta Amerikan azaña andiak egin izan dituztenak.

Erri onetakoak ere ziran Fr. Juan de Espila Napoles-ko Erresuman Obispo, Masera deitzen zaion tokian egon zana; eta on Pedro de Leizada Obispo Tripoli-ko izandua, zeñari Eliza artan eman zioten lurra.

Orobat ziran Erri bereko semeak Domingo de Amasa, eta Domingo de Arriola Murgia, biak Kapitanak eta armadan itsasos serbitzo andiak egindako gizonak.

L. IZTUETA.





# GIPUZKOAKO GIZONAK

## VI

**Donostiako** Uriak gai guztietarako eman izan ditu seme argido-tarrak, erari egokienarekin tokitik oberenean arkitu izan dalako; zeintzuben izendatuko ditudan bakocha beren saillari darraizkiola Eliztarretatik asirik.

Domingo Manzio, edo Mans izandu zan Obispo Bayonan amairugarren eunkida edo sigloan,

On Fr. Juan Esteban de Urbieta Obispo izan zan Napoles-en Telleri deitzen zaion tokian.

On Prudenzi de Sandobal izandu zan Tuy eta Iruñeko Obispo, eta Badajoz ta Zamorako ere autatua.

On Franzisko Segurola, Arzobispo Zaragozaan egon zana jaio zan milla bost eun laurogei ta emeritzigarren urtean, eta bataiatua izan zan Donostiako San Bizenteko Elizan.

On Fr. Franzisko de Ganboa, Agustinoa, Teolojiako Maisu ta erakuslea Salamankan, Erregeren Predikari-nagusia, Obispo esleitua Amerikan, de la Paz izendatzen dan lekurako, On Juan de Austriaren konfesorea, Obispo Koria-koa, Arzobispo Zaragoza-koa, Uri artako bakiregi Santo Tomas Biilanuebakoa-ren, ill zan milla sei eun irurogei ta amalaugarren urteko mayatzeko illaren ogei ta bigarren egunern Torres-ko Markes-en Echeetan, jaio zalarik milla sei eun ta zazpigarren urteko urri-illaren bian, eta bataiatua Santa Mariako Eliznagusian.

Donostiako semeak gichigokoak izan ez dira Gobernuko lanetan,

gudan, itsasoko lanbidean eta osterontzeko eginkizun gizonari dagozkion guztietan. Aurrenengoen artean kontatzen da on Alonso Idiak ez Karlos Kintoren goarpelari eta lenengo konsejuko, Estremera Santiagoren ordenako Gomendaria, jarraitu zion Enperadoreari Tuneza egin zeban bidajea. Berak zekutsala egin zan milla bosteun ta berrogeigarren urtean, Españarekin Franzieren arteko alkardadea, Martizti Enperadorearena Parisa etorri ezkeroztik, eta biraldu zeban Enperadoreak Españara Prinzipe Felipe bigarrenarengana, Infanta oña Mariarekin Duke de Orleans-en ezkontza erabakitza, ematen zitzaiozkala dotetzat Flandes-ko batiztunak.

Idiak ez Donostiako seme argidotar au Alemaniatik Españara zetorrela Sajoniako ibai bat igarotzeko tenporan ill zuten Luteranoak milla bosteun berrogei ta amalaugarren urteko garagar-illaren irugarren egunean, zeñean eralleak izandu ziran zemaituak merezi zuten bezala Garibai, ta Sandobal jakintziak esaten dutenez. Beraren gorputza ekarri zan Donostiara, eta arkitzen da lurpetua kapilla nagusi Konbento San Telmo-koan, zeñaren eta Dominika Donostiako Antiguken Ipinlea izandu zan bera.

On Juan de Idiak ez, seme on Alonsorena, Felipe bigarren eta irugarrena-ren goarpelari onbidekoa, Gomendari Leon-go, Konselluko Diaganusi, Biralkin Jenoban ta Benezian, izan zan arretatsu eta oitura onakikoa; ill zan Segobian gizon milla seiun, ta amalaugarren urtean urri-illaren amabian, eta beraren gorputza ekarri izan zan San Telmo-ko Konbentu Donostiakora. Uri guztia proguko modura duloz janzia irten zan Oberaren errezibimen dura Oriamendiko gañeraño.

On Migel Okendo, zeñari Felipe bigarrenak biraldu izan zion Aranjuez-tik titulu Jeneral itsasoetako milla bost eun irurogei ta amazapigarren urteko Maiatzeko illaren amairugarren egunean egiña, jaiio zan beraren izeneko eche Purubetar Donostiako murruez kanpotik Uliako ondartzeta-gaurko egunean ere agiri dan artan. Gizon argidotar onek egindako azaña andiak kondaira askotan daude ezarriak. Beraren seme on Antonioaren egikera miraritsuak aipatu ditut lenago, guztiak osotoró ez bada ere, gudari errutsua izandu zala aditzera emateko lainbat.

Oroitpen argidotarra merezi dabena da Jeneral on Migel bigarren Okendo, seme on Antoniorena, zeña izan zuan ezkontzaz kanporakoa oña Ana de Molina Andre leñargiti Torrejimeno-koagan. Milla seiun, berrogei ta amaseigarren urtean Kantauriako eskuadraren Jeneral zegoela egindako serbitzo andien bidez izandu zan Felipe laugarrenaren

gogokoa. Lanbide onetarako ekidatu zituen sei Galeon eta patache bat; milla seieun, irurogei ta irugarren urtean bere kontura eragin zituen beste ontzi bi armada Ozeanokorako, zeintzuetan serbitzatu zuten Kapitan beraren bi seme on Migel Karlos eta on Jose Okendok.

Jeneral on Lorenzo de Ugalde Orella, zeñaren azañak dira guztiz andiak, batez ere Filipinas-etako itsasoetan milla seieun berrogeita seigarren urtean eta berrogei ta zazpigarrenean Holandesaren armada emezortzi bajel gudakoen kontra egindako pelea gogorra, zeñak iraun zeban arratsaldeko zazpi orduetatik bigaramun goizeraño, gizon bat bakarra ere Kapitanatik galdu bage; eta bost baizik ez Almirantetik ere. Bizarra andi au egin zebalako errezibitu zuten Manilan olagaratze andiakin Uri osoak eta bertako Gobernadore on Diego Fajardo jaunak.

IZTUETA



# GIPUZKOAKO GIZONAK



## VII

On Markos de Aranburu, galeon India-etakoen Jenerala, zeñak Eskuadra bat kidatu zeban Ribadeo-tik Lisboara milla seiun ta seigarren urtean. On Juan de Echeberri Konde Billalkazar-koa, Markes Biliarrubia-koa, lau aldiz galeonen Jenerala. On Juan Domingo Echeberri beraren anaia, Jeneral ontzidietakoa. On Agustin Diustegui, zeña ezaungarritua izan zan asko Flandesa, Rochelara, eta Burdeos-ako bidaje eta Kartajena India-etakora, eta Habanara egindako irte eraetan. On Bartolome Urdinso Jeneraleskuadrakoa milla zazpieun ta amazapigarrren urte inguruan ezagutua. On Bias de Lezo, gizon gogoangarria, Kartajena India-etako ertsitua zegoela, Almirante Bernon-en kontra gordezkeratu izan zeban España guztiaren pozkida beterako milla zazpieun ta batgarren urtean. Almirante urgullusu onek ponpareriaz eranzatu zeban metallu batean Jeneral Lezo belauniko beraren oñetan jarriarik ezpata eskura ematen ziola, garaipenaren segurantzat kontatzen zebalako. Metallu au agertaratu zeban Maisu Florez-ek.

On Antonio Alliri izan zan Almirante itsasoko India-etara bideko armadan. On Hernando Martinez de Aranburu, Karabelas-koan. Filipinas-etarako bidajeon lagundu zion Jeneral on Juan Ronkillori milla seiun ta amargarren urtean. On Jazinto Antonio Echeberri, on Juan eta on Juan Domingo Echebarri Jeneralen anaia, irurak Domingo Echeberri Sekretarioaren semeak, eta Pedro Echeberri milla laureun,

berrogei ta amargarren urte inguruan Nafarroako Errege on Juan bigarrenaren goarpelari izan zanaren jatorriak. Oraindik galdu bage eta osorik zintzoro gordea arkitzen da karta bat on Jazinto Antonio Echeberri Almiranteari bere ama oña María Ana de Lobera-k milla sei eun ta berrogeigarren urteko apirillaren amalaueun egiña, esaten ziolarik menazki, bere anaia ondraduak idurikatu zitzola eginpide guztietan.

On Antonio Isasi Gipuzkoako Eskuadran Almirante zan milla sei eun ta amabigarren urtean, eta egin izan zituen zuzenkiro Jeneral on Antonio Okendoren tokian berari zegozkion lanbide guztiak.

On Pablo Agustin de Agirre ontzi Kapitanak izandu zan ezagun-garritua iru Ingeles ontzi el Oxford, Keut, eta Lenox irurogei ta amarna kanoikori gogor egin izan zielako bere menpeko La Prinzeza bakarrarekin Ortegal-ko bukaeraren goiendean, goizeko zortzi orduetatik illunabarrerañoko guztian milla zazpi eun ta berrogeigarren urteko apirillaren emeretzigarren egunean. Gertakari au zearo ta luzeago paper anitzetan izkribaturik zabaldua arkitzen da, eta berezeki Utrech-ko gazeta maiatzeko illaren amaseigarren egunean, eta Felipe bostgarrenak garagarrillaren ogei ta iruan Kapitan Agirre berperari igorri ziozkan argibide-etan; bai ta ere, beraren eche argidotarreko oroitpenetan.

Kapitan on Joakin de Agirre ta Okendo, zeñak enkargu goienengoaren bidez Erregezko agindeak baturik, egiñeratu izan zeban itsasorako bear zan lege zuzena, zeñari zatirik andienean on Jose Mazarredo Jeneralak berriro azken esku-ukitua eman zion. Geroztik izandu zan, jarduera onetarako lendabiziko aldian esleitutako Jenerala-nagusi eta ill zan Guatemalan Dianagusi zegoela.

On Santiago Zuazola; izkribatu zeban onek liburu bat itsasoz dabil-tzanentzako baliosoa chit, non infinten zituen toki guztietako izen erazkoak, eta gudarako ondo armatua egon bear daben ontzi batek bear dituen prestamen guztienak, eta moldizkidatu zan Kadiz-en guardadi itsastarren ikasbiderako, zeñaren zuzendari ta kontuartzalle bera zan.

On Migel Santos de Kamino Kapitan itsasoko ta gudakoa, Fernando seigarrenak emandako agerien bidez egin zituen serbitzo andiak Amerika-ko itsasalde-etan beraren erreinaldian.


On Sancho de Leiba, Kapitan jeneral Gipuzkoakoa, milla bosteun, berrogei ta amazapigarren urtean, beste on Sancho de Leiba Kapitan jeneral Gipuzkoakoaren semea, eta on Antonio de Leiba ots andikoaren illoba bere argitasun ta jakinduriaren bidez gai askotarako izandu zan gizon andia chit.

On Alonso Idiakez, Duke Zitudad Real-koa Birrey Nafarroa-koa, Kapitan jeneral kaballeriakoa, eta Maestre de Kanpo Milan-go Estaduetakoa, Komandante jeneral eta Koronel Erregiña oña Ana de Austria, eta Isabel Borbon-goaren emoitzak Bidasoan egin ziradenean, on Juan de Idiakez goarpelari onbidekoaren seme egiazkoa, izandu zan guztiz gogoangarria, eta Flandesko gudan eta Franzia-alkardade Hugonores-en kontrakoan agertu izan zeban balorea eta bere egikerak chit dira andiak Dierriaren Kondairak esaten debanez; eta ots-andiko diakinde edo funzio Bergopzon, San Kintin, Noyon, Charlemon, La Chapele, eta beste anitzekok egin zuten aomen andikoa beraren izen gozo jatorri garbikoa. Gizon andi au ill zan Milan-en milla seieun ta emezortzigarren urreko urri-illaren zazpigarren egunean, eta beraren gorputza ifini zuten gordetzen Kapuchinoetako Konbentu batean, Donostiako Can Telmora bere aurrekoan lurpetokira, edo Bermeoko San Franzis-kukora aldatzeko.

IZTUETA.



# GIPUZKOAKO GIZONAK



## VIII

On Juan Alonso Emmanuel de Idiakez, seme on Alonsorena, Marques de San Damian eta ill zitzaionean bere aita Duke de Ziedad Real, Kapitán Jeneral Galiziakoa semetzat artu zeban Duke de Saboya-k, zeñagandik izena gelditu zitzaion Emmanuel.

On Tomas de Andaya, Mariskal ta Jeneral Manilako kanpoetako, Kapitán Jeneral kanarias-etako milla zazpieun ta amabigarren urtean on Manuel de Andaya Obispo Oviedokoaren aita.

Irakstaun Santander juriskonsulto ospatsua, Errege Fededun on Fernando eta oña Isahel-en aditzallea. Asustin Krabaliz; milla bosteun, irurogei ta laugarren urtean izkribitu zeban España ta Franzia ren leñentasan edo prezedenziaren gañeko ilkuskaia. Lizenziado Kristobal Lopez Zandategui, Jeneral on Antonio Okendoren aitasaba amaren aldetik, eta Luis Kruzat, zeintzuben argitara eman zuren, edo emateko moduan ifini zuten Probinziaren enkarguz beraren Fuero, lege, eta aginde-en bilguma berriztatua.

On Luis Echezarreta, Katedratiko eta Erretore Oñatikoa milla bosteun, laurogei ta amaikagarren urtean gorputz izkirazko aren zuzen bide Felipe bigarrenaren aginduz egin zanean. Gizon au jakintsua zan chit, batez ere, Griego, Hebreo eta Latin itzkuntz-etan.

Juan Kruzat, itzkuntza-en azaldari edo interprete Lisboan zegoena, bazekizkien Tudeska; Polaka, Rutena, Italiana, Flamenka, Franzesa, Ingelesa, Latina, Gaztelania eta Euskara.

Domingo Lizaso, Donostiako Zuzelekuaren-zaya; izkribatu zituen bi tomo andiak titulu onekin, Nobiliario de la Provincia de Guipúzcoa, Generalogía de sus Solares más distinguidos; egitade maitagarria chit bere lanbidean; zeñaren aipamena egiten dabean Aita He-naok Kantauriako anziñaeraetan.

Fr. Manuel Bizente Echevarri, Dominicoa, Konde Billaikazar-koaren semea; izkribatu zeban Probinzia Guipuzkoaren ondrari darrazkion gauza baliosoen gañean, eta milla zazpieun ogei ta amabostgarren urtean aurkeztu zion Donostiako Urira baturik arkitzen zan Batzar guztiakikoari; bañan etzan iritsi izan moldizkidatzera, beste geiagorekin ere gertatu dan bezalaisen.

Aita Agustin de Kardaberaz, Jesuita, izen andiko Missioa. Euskaraz eman zeban argitara itzkera eder bat milla zazpieun irurogei ta bat-garren urtean Iruñean moldizkidatua; zeñetan arkitzen diran ezarriak argi eta garbi, itzkuntz maitagarri are lendabiziko onetan zer nai gauzaren gañean gaindiro itzegiten bear diran neurri zuzen egoki edertasunik andienekoak; izkribatu ere zituen debozozko libru eder onak, moldizkidatu direanak asko aldiz. Aita Domingo Meajher, Jesuita, eta Teologo andia zan bezala Balladolin goienengo mallara igoa, lotostari edo poeta oberenetakoa ere zan Gaztelanaiz eta Euskaraz. Berak moldatutako itz-neurtu askoren artean jostalluenetako bat, ardoak gizonari ematen dion atsegintasunari dagokiona, zortzikoan jarria ara emen;

Gizon bat ardo bage  
 Dago erdi illa,  
 Marmar dabilta tripak  
 Ardoaren billa:  
 Bañan edan ezkeru  
 Ardoa chit ongi,  
 Gizonik chatarrenak  
 Balio ditu bi.

On Jose Santiago de las Casas, zeñak milla zazpieun berrogei ta emezortzigarren urtean Madrillen modizkidaturik agertaratu izan zeban tomo bat sorkari berria, eguzkiarekin munduak artu dabean auzia erabaki naiean izkribatua.

On Bizente Lardizabal Sendagin ospatsua, zeñak argitara eman zituen bi liburu, bata, Sargazoren indarrak nolakoak diran eskorbutoren



kontra, eta bestea, itsasoan dabillen jendeak izan oidituen gaiso ta eritasunen gañean.


On Manuel Ignazio de Agirre, Gipuzkoako Probinziaren Goarpelari izan zana, zeñan izkribatu zeban lurrak ongarritzeko marga-ren gañean. Or, Franzisko Jabier de Lariz, Apaiza, Katezismo Euskarazko biren aurkill ea, bigarrena moldizkidatu zan Madrillen. bere iraulkera Gaztelaniazkoarekin. On Juan Jose de Zuaznabar, zeñak izkribatu zituen paper balioso anitz, Darsena berri Pasayako itsasarterako egin bear zanaren gañean. Juan Perez de Erzilla, milla bosteun, irurogei ta ama-laugarren urtean kanoi berri bat sortu izan zebana Andres Loyde, orobat milla seiun ogei ta seigarren urtean alkabuz bat bost tiro batetan ematen zituena egin izan zebana. On Luis Liñan Bera gizon jakint-sua lankaikintzan, zeñak egin zeban zurezko zubi bat Pasayako itsasarte-garbitzeko.

Migel de Santa Zelay, argin-maisua, zeñak Juan de Urrutiarekin alchatu zeban San Bizenteko Eliza milla bosteun ta zazpigarren ur e alderontz. Ambrosio de Bengoechea, eta Juanes de Iriarte ere argin maisuak jardua zuten Eliza bereko Erretablo ospatsua egiten milla bosteun laurogei ta seigarren urtean. Felipe Arizmendi, Eskultore igaro dan eunkida edo siglokoa. Migel de Olarreaga, pintatzalle oberenetako a bere langintza Erroman estudiatu ta ikasia; eta Juan de Echaide, zeñak agertu zeban bere izeneko Portua, Euskaldun lagunkidari milla zaz-pieun, irurogei ta amabigarren urtean Terranobaren agertzeaz itzegi-tean esaten zitzaion bezala.

IZTUETA.



# GIPUZKOAKO GIZONAK



## IX

**Elgoibarko** semea zan on Fr. Domingo de Alzola Obispo Guadalajara España berrikoan egon zana.

**Elgetako** Errian jaiok ezagutu dira gizon argidotar anitz; beren artean kontatzen da on Andres de Orbe Larreategi, Arzobispo Ba. lenzia-koa, Inkisidore Jeneral eta Gobernadore Konseju Kastillakoa, Aingozarko mugapean arkitzen dan baserri-eche Orbe deitzen zaionaren jatorria.

**Ernaniko** semea zan Kapitan Juan de Urbietta, Pabia-ko batallan milla bosteun ogei ta bostgarren urtean Franziko Errege Franzisko lenengoa arrestatu izan zebana; zeñaren gorputza arkitzen dan lurperatua Erri bereko Eliza nagusian Ebangelioko aldean bere obiandearekin. Erri au ondratu ere dute on Fr. Juan Esteban de Urbietta, Obispo Telsi-ko Italian izan zanak, Arbiza jaun Obispo de la Puebla de los Angeles-koak eta beste geiagok.

**Errezilko** semea zan Aita Fr. Domingo Erkizia, zeñak nozitu zeban martirioa milla seieun, ogei ta amairugarren urteko aboztuko illaren emezortzigarren egunean.

**Errenteriako** Erriak eman izan ditu seme argidotar anitz; zeintzuben artean ezagungarrituenak izan dira on Martin de Renteria Uranzu, Jeneral itsaso Ozeanokoa, bere errutasun eta jakinduriaren bidez Enperadore Karlos bostgarrenaren naierakoa chit. On Pedro de Zubiaurre edo Zubiaur, Jeneral ospatsu itsaso Ozeanokoa Felipe bigarren eta

irugarrenaren denporan. Juan Perez de Renteria, goien aipatu dedan on Martin-en semea Juan de Isasti Kapitana. Martin Perez- de Irizar Kapitana. Jnan Lopez de Isasti Kapitana. Domingo de Irizar Alfereza. On Martin de Zamalbide Jeneral itsaso Egoaldekoa Felipe laugarrenaren denporan. On Martin de Zubieta, munduaren ziazaldari andia, zeña joan izan zan Magallanes-ko itsas-estuaren agerteratzer milla, bosteun, laurogei ta bostgarren urtean. Kristobal de Gamon, Astea-ren izenarekiko libruaren Aurkillea eta bi tomo poesiakoak amaseigarren eunkidaren azken-alderontz Leon Franzia koan argitara eman zituenak, Errege Fededunaren konsejatzalle mami arkitzen zala; eta beste onelako gizon balio andiko asko chit eman izan ditu Erri onek, batez-ere arma-etarako.

**Eibarko** Errian jaio ta aziak ezagutu izan dira gizon gogoangarri anitz letra ta arma-etarako, zeintzuben izenakin egiñeratu leikean lista andi bat. Oen artean guztiz argidotarrak izan dira on Fr. Ignazio de Mallea, Obispo Rio de Plata-koa. on Fr. Andres de Ubilla Obispo Chiapa-koa. On Fr. Esteban de Alsua Kuba-rako esleitua. Domingo Martinez de Orbea, Zaldun Santiagoren ordenakoa, enperadore Karlos bostgarrenaren Tesorero jenerala. Beraren anaia Juan, gobernutari eta Tesorero jeneral Aragoiko Erresumakoa. Kapitan Juan Lopez de Arichulueta, Karlos bostgarrenaren denporan India-etarako armadan Jeneral izan zana, eta bere Galeon La flor de Lis deitzen zitzaionarekin azaña andiak egin zituen. Franzisko de Ibarra, Zaldun Santiagoren ordenakoa, Komisariojeneral Olandan eta Konsejatzalle gudako Felipe bigarrenarekin egon izan zana. Diego de Ibarra zaldun ordena berekoa, eta Galizia berria irabazkidatu zutenetako bat. Franzisko de Ibarra beraren illoba, eta Martin Lopez de Ibarra, Bizkai berriaren irabazkinzalleak. Erri onetako Eche purubetar anitzetan arkitzen dira beretako jatorri argidotarren ekantza edo erretratoak, Eche Dorre Isasi-renean dago on Felipe laugarrenaren seme Infante on Franzisko Fernandoren ekantza eiztari janzian eskupeta eskuan eta chakurra aldamenen dituela. Errege onek berak milla, seieun ogeita amargarren urteko garagarillaren lenngo egunean Madrillen egindako chartelaren bidez, infante onen persona aziera ona emateko ifini zuten on Juan de Isasi Idiakez Zaldun Santiagoren ordenako ta Erri bereko jaiotarraren eskuetan, non ill zan infante au milla seieun ta amalaugarren urteko maiatzeko illaren amakagarren egunean, eta beraren gorputza eraman zuten Eskorial-ko Elizara urte bereko laurenbat santu egunean.

**Gatzagako** Erriak bere seme-en artean kontaktzen du on Jose de Garro, zeñak Buenos Aires-en Kapitan jeneral zegoela Portuges-ai artu izan zien Ugarte Sakramentukoa edo La Isla del Sacramento milla seieun laurogei ta bostgarren urtean, eta indartu ere zeban Balparaiso-koa; gisa berean Kapitan jeneral izan zan Donostiako Urian, non ill zan milla zazpieun ta bigarren urtean. Gizon argidotar au Mondragoin jaioa bazan ere, beraren gurasoak eta aurreragokoak ziran Gatzagakoak, non eragin zeban Jauregi bar Elizaren aurrean, ifinten ziolarik bere jatorri-ko Echearen izena.

**Gudugarretan** arkitzen dan eche purubetar Mujica izendatzen danaren jatorria zan on Franzisko de Abila Mujika Kardenal Jerusa-lengo Santa Kruzen izenekoa.

IZTUETA.



# GIPUZKOAKO GIZONAK

## X

**Getariako** Erriak seme argidotar anitz azi izan ditu. Guztien artean ezagungarriena da lenago izendatu dedan Ugarotar Juan Sebastian de Elcano, zeñaren gurasoak ziraden Domingo Sebastian de Elcano, eta oña Katalina del Puerto, guztiak Getarian jaiok. Juan Sebastian izan zan munduari jira osoa lendabizi eman ziona bere ontzi La Victoria deitzen zitzaionarekin, zeña milla bosteun ta emeretzigarren urtean Magallanes-ekin irtenik, milla bosteun ogei ta bigarren urteko agorillaren seieun sartu zan jira egiñik San Lukas de Barramedan, eta azaña andi onen saritzat Enperadore Karlos bostgarrenak eman zion Eskutarmen beti betiko ezagungarri mundu osoaren idurina izkribuz jarririk *primus circumdedisti me*. Gipuzkoatar gogoangarri au ill zan milla bosteun ogei ta seigarren urteko aboztuko illaran bostgarren egunean, Kapitán Jeneral armadarekin Malukora cijoala; eta beraren obia arkitzen da jasoa on Pedro de Echabe ta Asu Zaldun Kalatraba-ko ahitukoak milla seieun irurogei ta amaikarren urtean. Azkenean on Manuel de Agote Erri onetako jaiotarrak bere kostuz goratu dio tallu bat zazpi oñ luzeko irozpearekin, zeña egin zeban on Alonso Jiraldó y Bergaz, Ika-sola erreál San Fernando-koaren zuzendari eta Erregeren Ganbarako Otallugilleak, eta Plaza agirikoan arkitzen da ifinia marmolezkoirozpe andigoiti baten gañean iru malla zabal ederki apainduak aldamenetan dituela, eta utsunetan izkribatua dago Latíñez, Erdaraz eta Euskar berak egindako azaña andia; eta beraren jaiot-echeko jaun ta jabeak es-

kubidea emanik egiña arkitzen da toki berean kapilla bat Santa Maria Magdalena-ren izenekoa. Erregek eman zion Gallaldiak, Illkokas Irakastunak, Garibay jakintziak, eta Pedro Montesano ernaiak esaten dabe, ezik, alik eta Juan Sebastian Elcano-koak ekarri izan zituen arteraño itzarala ezagutzen Españan kanela, klaboa, eta inchaur jakikaia edo nuez de espezia.

Erri onetako seineak ere ziran Antonio de Urkiola, Erregueren ontzidi ta Galeonkintzako Benaitari nagusia eta Jeneral Kantauriako Eskuadrarena. Baltasar de Urkiola beraren seme Kapitana. Kristobal de Basurto Kapitan itsasokoa eta ontzikintzallea. Lopez Martinez de Zarauz, Erregeren Konsellukoa on Enrike laugarrenaren denporan. Juan Lopez de Ibartola, Sebillan sal-erosiko kontuak ematen ziran Echan kontatzalle nagusi ogei ta emezortzi urtean egondu zana. Juan Lopez de Zarauz, kontatzalle armada India-etako guardadiarena. Juan Saez de Aranburu, orobat kontatzallea. On Antonio de Arriola Alferetz,. Kapitana on Pedro Bikuña-ren, eta gero Sarjento nagusiaren Ayudante Lombardian. Juan Martinez de Asu, zeñak egin izan ziozkan Erregeri serbitzo andiak. On Domingo de Buenechea Kapitana ontzikoa ia Ugarteak ezagutzera joan izan zana. Beraren anaia on Franzisko Buenechea Kapitana Fragatakoa, urte askotan Errege serbitzatu zebana leialkiro. Juan Bautista de Buenechea, Kapitana armada errealekoa, itsas-gizon aitua ta asko ikusia, eta Errege jaunak guztiz maite zebana. On Franzisko Echa-be, zeñak izkribatu zeben Liman, Arzobispo bertan izandako Santo Toribio-ren kanonizazioaren bidez Uri ark egin izan zituen diakinde andien gañean. Zarauz deitzen zaion Eche Purubeko seme argidotarrak izan ziran Errege on Juan, eta on Enrike-ren Konfesoreak.

**Larraulko** semea zan on Franzisko de Tolosa edo Anzola, izen onetako eche purubetar Erriberekoan jaioa San Franziskuko Erligioan Jeneral, eta Obispo Tuy-n egona, ill zan milla ta seieungarren urteko agor-illaren bederatzigarren egunean, Katedral berean Epistola aldeko kapilla nagusian arlosako izkribuan irakurten danez.

**Lazkauko** Erriak seme argidotarrak ez, ezik, eman izan ditu Echeandra gogoangarriak ere. Oña Maria de Lazcano Erri onetako alaba eta alargun on Antonio Okendorenak milla sei eun ta berrogeigarren urtean, eta milla sei eun ta berrogei ta amargarrengoan ifini zituen bi Konbentu, bata Santa Teresa Karmen ortozekoa, eta bestea San Bernardoren ordenakoa Santa Ana-ren deiarekin. Eche andra onek berak jarri ere zeban Donostian Jesuita-en dakiregia, zeñaren jatorria izanik

Gipuzkoan dan argidotarrenetakoa, Erriko Elizaren alboan dauka anziña anziñako Jauregi ospatsua, eta beraren jaun ta jabe gaurko egunean arkitzen da Markes de Balmediano. Eche ondra andiko onek eman ditu seme argidotar anitz arma-etarako, zeintzubei Nafarroako Erregeak izkribatzen ziezaten lengusuen izenean. Jauregi berean zintzoró gordeak daude, bada, oraindik karta berperac.

**Legazpiko** semeak ziran on Diego Aszensio de Bikuña Almirante Jeneral itsasoko ta leorrekoa; on Tomas de Bikuña Intendente jeneral Marinakoa, Kapitan ertzgoitikoa, zoñak ekarri zeban on Karlos irugarren Jauna Napolestik Españara; on Jose de Lardizabal y Bikuña, Barzelonako adiundean aurrena salatzalle, eta gero aditzalle ta eronle, eta azkenean aziendako konsejatzalle egondu zana ill zan milla zazpieun irurogei ta amaseigarren urtean. Orobat izan zan Erri onetan jaio, edo beintzat bertako jatorria, Jeneral ospatsu Migel Lopez de Legazpia, Filipinas-etako Ugarte-en irabaz kintzallea.

IZTUETA.



# GIPUZKOAKO GIZONAK



## XI

Lezoko Erria ondratu izan dute anitz bertan jaiotako seme argi-dotarrak gudako egikera-etan ez ezik, letra-etaco lanbidean ere. On Juan Martinez de Lezo, Eliza bereko Erretorea, izanik gizon balerosoa eta jaiot-erriaganontz amodiozko naitasun bero bizi gartsuarekikoa, milla bosteun ta ogeigarren urtean, Franzesak Ondarribi-alderontz azaldu ziradenean, Erri inguruko jendea sutunpadiarekin arturik, Olear-soko muñora igo, ta eraso izan zion etsaiari portizki, baita atzeratu ere kalte andiak zituela.

On Domingo de Lezo, Kuzkon Obispo zegoela ill zan milia bosteun berrogei ta amabigarren urtean. On Lope Isasti, Benefiziadu Eliza berekoak izkribatu izan zeban Probinzia Gipuzkoaren kondaira, milla seiun ogei ta bost garren urtean, eta arkitzen da oraindik moldizkidatu bage, zeña amar onza urre pagaturik eraman izan zeban Madrilera bertan bizi izatez zegoen Euskaldun ernai batek milla zortzieun ogeita amairugarren urtean. On Franzisko de Gainzak izkribatu zeban Irun-aranzunena, zeñari deitzen dion bere Erria, jaioa dalarik Lezon, milla seiun berrogei ta, emezortzi garren urteko azaroko illaren zazpigarren egunean; beraren egitadea moldizkidatu zan Iruñean mila zazpieun ogei ta emezortzigarren urtean. Erru andiko Juanot de Billabiziosa nagusiena izandu zan Probinziako Eskuadra baten Jeneral izendatua milla bosteun laurogei ta bigarren urtean Franzes-en kontra irteteko. San Migelko Ugartearen urtean egin zuten batalla, eta Juanot garailari ill zan



ondra andian bi bala alkabuz-ekoakin. Errege Jaunak saristatu zeban beraren balorea onen seme on Migel-engan, zeña iritsi zan Almirante izatera. Orobat izan ziran Juanot chikia ta Juanecho, guztiak lenengoaren ondorengoak, beste geiagorekin itsasgizon ernai azkar gudari gogorrak.

Mondragoiko Erriak seme argidotar anitz eman izan ditu gai askotarako. On Kristobal de Mondragon eta Otalora izandu zan Flandesko gudaetan serbitzo andiak Erregeri egin ziozkana, zeñaren leialtade ta balorea izanik gain gañekoak bere agindeko zaldidiarekin porrokatu izan zeban Konde de Maurizioarena, Felipe de Nasauk gobernatzen zebana, eta ill zan milla bosteun, laurogei ta amaseigarren urteko illbel-tzean, bere azaña andiaren oroitpena beti betiko uzten zebala. Maistre de Kampo on José de Garro jaió zan Mondragoin milla seiun ogei ta irugarren urtean, eta izandu zan Gobernadore Tukuman, Buenos-Aires, eta Chilen zeña ill zan Probinzia onen Presidioetako Kapitan Jeneral zegoela. Maistre de Kampo Jeneral on Franzisko de Ezteibar zori onean izan zan Erregeren indar leorreko ta itsasokoen agintari Filipinas-etan Chino eta Ingelesen kontra, non egin izan zituen serbitzo andiak ogei ta bost urtean, eta emendik biurtzen zala ill zan Berakruz-en milla seiun irurogei ta bederatzigarren urteko uztaillaren emezortzigarren egunean. Jeneral on José de Iramain ill zan Potosi-ñen milla zazpi eun ta berrageigarren urtean. On Migel Ruiz de Otalora, Eronle Iruñean, Dianagusi Mejikon, eta goienengo Konseju Gaztelakoa izandu zan on Domingo de Okariz, eta bere anaia on Rodrigo de Okariz izan ziran Ministro, Konseju erreal berean. On Juan de Andibano, Konde de Monterron, milla seiun, laurogei ta amaikagarren urtean izandu zan aipatu dedan azitzañakoa. On Pablo Antoni de Ondarza konseju azienda errealekoa. Esteban de Garibay y Zamalloa; niundu osoak daki Euskaldun garbi au zala argidotarra izateaz landara guztiz ernai. Egia zier-toro onen sinistmenerako entzun bear dezute zer esaten daben España-ko Itztegi Luzeazaltar Kondairazkoa bigarren tomoan ogei ta amairu-garren orrikatik aurrera.

«Esteban de Garibay y Zamalloa, el cual considerando las fábulas y consejas que afeaban y aún desfiguraban los verdaderos hechos de nuestras memorias históricas, la poca ó ninguna diligencia de los escritores en reconocer los archivos, y en ellos los documentos coetaneos, y conociendo el vacío inmenso de nuestra historia nacional y que España, rica en acciones y acaecimientos gloriosos dignos de la posteridad, ca-

recía de una obra metódica, trabajada con crítica sobre instrumentos legítimos y originales y que los abrazase todos, acometió el primero la ardua y gloriosa empresa de escribir el compendio historial de estos Reinos, y le concluyó felizmente en Mondragón con tanto mayor mérito, cuanto más grandes y multiplicados fueron los obstáculos que tubo que vencer su loable constancia, comenzando desde luego un camino no hollado ni trillado hasta entonces; reconoció archivos, emprendió viajes, sufrió repulsas, y sin interes, ni auxilio ni protección, animado de un amor verdaderamente patriótico, y de aquel moderado deseo de gloria y honor que es lícito apetecer, perfeccionó y publicó su Historia General de España. Y aunque muchos claros varones, tomándole por modelo y dechado, trabajaron con infatigable zelo por espacio de dos siglos historias generales y particulares de nuestra nación, la de Garibay, no obstante de ser la primera y mas antigua, deberá siempre estudiarse y consultarse por los que aspiran al conocimiento del importantísimo ramo de la historia. Tan cierto es que la de Garibay, además de su buen lenguaje, generalidad y método, está sembrada oportunamente de exquisitas noticias, que con dificultad se hallaran en otros historiadores. M.»

Ezta gichi autormen au Erdaldunak egitea Euskaldunarentzako.

IZTUETA.



# GIPUZKOAKO GIZONAK



## XII

Motrikuko jaiotarren artean ezagungarrituak izan dira gizon argi-dotar anitz. On Migel de Bidazabal Kantauriako Ozeanoko armada Errealaren Almirante izandu zan eunkida amazazpigarrengoan, zeñetan serbitzatu zeban ogei ta amasei urtean. Milla seieun ta amalaugarren urtean eraman zeban Flandes Eskuadra bat ogei ta bi ontzirekikoa tropa leorreratzekoakin; milla seieun ta emezortzigarrenean Jibraltarko itsas-estuan peleatu zan mairuen bost ontzi lodiren kontra, zeinzubek India-etatik zetozen aberastasun andiak, eta guztiak garaitu ta bereturik eman izan ziozkan Erregeren Erarioari irureun milla dukat; urte berean arrapatu zituen beste bi ontzi. Andik laster, aipatu dan itsas-estuaren urrean, amar ontzi Españako eta amasei Flandeskoai berak agintzen ziela peleatu izan zan garagarillaren ogei ta laugarren egunean mairuen Eskuadra ogei ta zortzi ontzirekikoaren kontra, eta oetatik ogei ta bi garaipendurik libratu ziruen milla ta bosteun kristau katibu zeuzkatenak; baita bildu ere kargamendu aberats bat Lanzarote-ko Ugartetik zekartena. Eta eunkida onetan merezi dute izendatzea On Juan eta On Tomas Idiakez anaia biak, lenengoa Kapitan Jeneral Martizti errealetako, eta On Fernando seigarrena Prinzipe zala onen zaintzalle egona, eta bigarrena ere orobat Kapitan Jeneral Martizti errealetako, Gobernadore eta Kapitan Jeneral Andaluziakoa, zeñaren oroitpena ospatsua dan Kadizen eta Portu Santa Maria-koan, toki bi oetako jen-

dearen ornidurarako iturri geza gozo ugari ederra ifini izan zebalako. On Antonio de Castañeta ó Iturribalzaga Teniente Jeneral armada errealekoa, eta itsasozco ibilleraren gañean guztiz jakinduri andikoa; izkribatu zituen bi liburu baliosoak chit, bata ugarotarrai zegokiotena; eta bestea ontzigille-entzako guztiz beardana, zeñak sartu zeban Españan ontzigiteko modu berri ona, eta oraindik gordeak arkitzen dira berak egindako bi molde zeintzubenk adierazten dabeen argi eta garbi, gai onetarako iritsi izan zeban jakinduri andia. Euskaldun argidotar au ill zan Madrilen milla zazpieun ogei ta zortzigarren urteko otsa-illaren bostgarren egunean, irurogei ta amabi urte zituen adiñean.

Mutiloako Elizan arkitzen da San Pedro-ren Erlikia bat bertako jatorri On Pedro Apaolaza Arzobispo Zaragozakoak biraldua.

IZTUETA.



# GIPUZKOAKO GIZONAK



## XIII

Oñatiko Erriak gai askotarako eman izan dituen seme argidotarrak merezi dute nor ta nolakoak izan diraden agertaratzea. On Juan Lopez de Lazarraga Errege Fededunen Gomendadorea, zeñaren birtute onak daintzen dituen Esteban de Garibay jakintsuak bere liburu emeretzigarrengoan, amabostgarren kapituluan on Gutierre de Cardenas Gomendari nagusi Leon-goaren eriotzaz itzegindakoan, esaten duela-rik onela:

«Su encomienda mayor quisieron dar los Reyes á Juan López de Lazarraga, su contador, natural de la villa de Oñate, que habiendo primero servido al mesmo Comendador mayor, vino á tanta privanza de los Reyes que en estos tiempos andaba el Gobierno de la hacienda por sus manos, siendo libre de cobdicia y ambición, y tan templado, que la encomienda mayor, ni otra cosa jamás quiso tomar, diciendo que en lo que tenía le sobraba. Por esto dando los Reyes la encomienda mayor á don Fernando de Toledo, y queriéndole dar la contaduría mayor, como tampoco la quisiese recibir, dijole la Reina; Ya sabeis Juan López tan bien como yo las necesidades del patrimonio Real, y de verdad no sé con que os dar sino sarna como Job á su muger Este tan cristiano varon acabó sus días en Valladolid en 18 del mes de Marzo, dia lunes del año de 1518, y fué enterrado en el insigne mo-

nasterio de la Santísima Trinidad que de monjas de la regla de Santa Clara fundó en Oñate patria suya.»

On Rodrigo de Mercado y Zuazola, Kolejial nagusi eta Katedratiko Ueskan eta gorputz bietako Irakasleari aurkeztu zirenen Errege Fededunak Santa Mariako Abadia; Inkisizioko Aditzaña Santua ifinteko denporan izandu zan deitua bear ziraden neurri zuzenak artzeko, bai ta autatua ere bertarako maisu ta agintari aurrengoetatik bat; gañera izandu zan kanonigo Zaragozako, Obispo Mallorca eta Sigüenzakoa, eta Errege-ordeNafarroa-ko, zeñaren barach-tasun modu andikoaz baliatu izan zan Errege Fededuna, Agramontestar, eta Beaumontestarren berezkiak donarioturik bakean ifinteko, zeñean eginkizun onetarako taltarako taldeaginteak on Rodrigori biraldutako irakasdeak arkitzen dira Oñatiko Errian ondo sordeak; bai ta ere Luteroren fede austeak denpora berean egiten zituen kalte lotsagarri likitsen eragozpenerako, Karlos V izkribatu izan ziozkan karta maitagarriak. Bereala esleitua izan zan Abila-ko Obispo, gero Dianagusi Granada-lío, eta azkenean, esaten eta sinisten danez, Santiagoko Arzobispo izendatua zegoela ill zan Balladolin milla bosteun berrogei ta zortzigarren urtean. Bere ondasunak utzi ziozkan, Errian ifini izan zeban Kolegioari, zeñetan zintzoro gordeak arkitzen diraden, oraindik, beraren alaja aberats anitz Apezpiku izan zaneakoak paper guztiakin; oen artean dago bulda bat chit begiragarria, non Paulo irugarrenak ematen dion on Rodrigori meza esateko lizenzia gauza ariñ batekin baraua ausi ondoan, beraren gaiso-aldi sarritangoai begiraturik.

IZTUETA.



# GIPUZKOAKO GIZONAK

---

## XIV

Aita Antonio de Araoz, Irakasle Salamankan, San Ignazio Loyola-koaren lagun maitea, zeñaren eskuetatik artu zeban Jesuitaren arropa. Izandu zan Españako Komisario Jeneral, ifini zituen bertan amabost Kolegio; bere osaba Pedro Migel Araozkoari burutara eman zion Erri onetakoa jarteko. Karlos V-ren alaba oña Juana Prinzesa Portugal-koak izan zeban bere Konfesatzalle Esleitua izan zan Toledo-ko Arzobispostarako, bañan etzeban jarri nai izan iñolako modutan ere. Prinzipe Katolikoan gogokoa chit izandu zan, zeintzubenk galdetzen zioten bere iritzia, gertatzen zitzaiozkaten zalanza guztietan, eta ill zan Santuaren anzarekin irurogei ta bat urteko adiñean arkitzen zala, milla bosteun irurogei ta amabigarren urte alderontz.

Irakasle on Lorenzo Asensio Otadui eta Abendaño, Eche Purubetar Otadui-koa zeña arkitzen dan Uribarruko Echadia eta Aranzazuko santuarioaren bitartean. Izandu zan Kolejial nagusieneko Alkalan, Katedratiko de Prima de Eskoto ikasola berekoan, Benefiziadu San Migelko Eliza Oñatikoan, Kanonigo Alkala-ko San Juston, Majistral Kuenkan, Obispo Lugon milla bosteun, laurogei ta amaikagarren urtetik aurrera, non alchatu zeban Eliztarrentzako azitechea San Lorenzoren izenarekin; milla bosteun laurogei ta amalagarren urteko apiriliaren ogei ta bederatzigarren egunean ospatu zeban batzar diozestarra; milla bosteun, laurogei ta emezortzigarrenean aurkeztua izan zan Abilako Obispo non Jaungoikoari kontu eman zion, bera datzan Obiaren ga-

ñeko arrian arkitzen dan izkribuak esaten daben egun ta urtean, ze dagaen ezarria letra oekin:

**D. D. Laurentius Otadui et Avendaño Episcopus,  
Abulensis, quondam Lucensis, Regius Consiliarius  
frequentissimus, vere pientissimus pater  
pauperuni et patriae  
Obiit 4 decembris anno 1611.**

Irakasle on Lukas de Lazarraga, Kolejial nagusi Sancti Spiritus Erri onetakoan, eta Santa Kruz Balladolid-koan; legetako Katedratiko Unibersidade onetan eta gero Ministro Chanzilleriako Uri izendatutakoan, non ill zan pobrekiro, Ministro jakinti bear bezalakotzat jende guztiak zeukala.

Irakasle on Juan de Lazarraga, Kolejial nagusi Sacti Spiritus Erri onetakoan eta Santa Kruz Balladolid-koan; Katedratiko Kanones-etakoa Unibersidade onetan; Almirantazgo errealean salatzalle; Tarragonako Martiztiaren Aditzalle jenerala, zeñaren leialtade piña eta balore andia ezagungarrituak izan ziran Uri berra ertsiturik zegoela milla seieun, berrogei ta laugarren urtean, eta azkenean Jaungoikoak beregana deitu zeban, Erregeren Eche ta Gorteko Alkate arkitzen zala.

IZTUETA.





# GIPUZKOAKO GIZONAK

## XV

On Fr. Kristobal de Lazarraga aurretik esan dedasnaren anaia, Zisterarren ordenakoa, graduatua Salamankan, Katedratiko Teolojiakoa Unibersidade onetan, Obispo esleitua Chiapa-rako eta konsagratua Madrillen milla seieun ogei ta emeretzigarren urtean, izandu zan goiagotua Obispo Kartajena Indiaetakora, zeñaren menpetasuna artu zeban milla seieun ta berrogeigarrenean, eta geroztik iru aldiz berak berez bigiraturik ill zan milla seieun berrogei ta zortzigarrengoan, beraren adiña berrogei ta iru urtetan igarotzen etzala.

Irakasle on Gregorio Lopez de Mendizabal, Kolejial nagusi Erri onetan, eta gero Santa Kruz Balladolid-koan; Katedratiko Kanones-etakoa Unibersidade emengoan; izandu zan salatzalle Chanzilleria Grana-dakoan; Aditzalle Gela berean, Erregeren Eche ta Goiteko Alkate, Gaztelako Konseju goienengoan, ill zan milla seieun berrogei ta zazpigarren urtean, Ministro garbi maitagarriaren izenarekin.

On Jose Antonio de Umerz eta Miranda, izandu zan Panama-ko Obispo.

On Kristobal de Gazteluondo, Kapitan Maese de Kanpo eta Teniente Jeneral on Alvaro Enrikez Kastillo-koaren, izandu zan Erresuma Peru-koProbinzia Mutilones, Jabalosos eta besteak agertukeraturik irabazkidatzeko Agintari-nagusitzat autatua. Egin izan ziozkan Erregeri guztiz serbitzo andiak, ibillera balioso oetan desegindu zeban bereazienda, biurtu zan Españara, eta ezagungarritua izan zan Franzesak

Ondarribia ertsiturik iduki zeban estura larriko denporan, non egondu zan bere Erriko mutil armatuen Buruzari.

On Juan Jose de Unzueta Koronel Zaldizkoetakoa, Kapitan Erizada erreal Karabineroena, guraso beartuen semea, bañan odolgarbikoen, eta Erri onetan jaiotako bizi izan direanena, soldadutza utsetik asirik bere egikera prestuen bidez igo zan malla aña goititura. Kataluniako Martiztian serbitzatu zeban lenagoko eunkidaren azken aldeko Franzia-  
rekiko gudan, non andizkatua izandu zan beraren izena ezin geiagorano, eta batez ere Billalonga-ko batallan, zeñaren asieran eritzea gertatu bazitzaion ere, erretiratzeko asmorik artu bage jarraitu izan zion bere lambideari portizki jazarra bukatu arteraño guztian etsaiaren arroke-  
riaz beldurtu bage. Gaztigatu izan zion onek, ezagutu zezala ezin zezakeala ezer egin indar andiagoen kontra, eta baldin ezpazan errendatzen tropa guztiarekin, beronen naierara, ganibetaz igaroak izango zira-  
rala; zeñari erantzun izan zion, ezik, bazeuzkala armak eta gogoa beraren kontra pelezteko, eta baldin atakatzen bazeban, ikusiko zala nor geiagoak ziran. Etsaiak artu zeban asmoa emateko atake guztiarikoa, eta bere tropa andiarekin joan zan gure Martiztiaren gordegarri-aurre-  
neko edo banguardia zegoen tokira, zeña arkitzen zan Liers eta zubi Molins-koan, non ill zan on Juan Jose de Unzueta argidotar balerosoa gogorki pelean ziarduela milla zazpieun, laurogei ta amalaugarren ur-  
teko garagarrillaren zazpigarren egunean, bere oroitpena azaña andien bidez illezkor egin ezkerotik, denpora artako paper agrikoak kantatzen duten bezalaisen. Errege Jaunak saristatu zituen Umantes andi onen serbitzo baliosoak, señalatzen ziozkalarik beraren arrebari eguneko amai-  
ka erreal bizi zan arte guztirako.

IZTUETA.

# GIPUZKOAKO GIZONAK

---

## XVI

Koronel on Santos de Antia, Kapitan sutunpadi errealekoa. Erregeren serbitzoan sartu zan Zaldu berezi edo Kadete milla zazpieun irurogei ta bederatzigarren urtean. Beraren buruzpide gudartarra izandu zan, sarritango enkargu andi eta eraman ekarriko ibillera baliosoetan; arkitu zan bera Amerika eguerdi-aldekoan egin izan zan leorreratzean, eta Santa Katalinako Ugarteau gertatutako eginkizun andietan, bai ta ere Sakramentu-ko erdaliria-ren ertsitze eta errendatzean; Jibraltar ertsitua egondu zan denpora guztian serbitzatu izan zeban leialkiro ta portizki; Orbaizeta eta Eugiko ekida erreal muniziotakoen zuzendari ta eraontzalle egon izan zan Erregek izendaturik, non egin izan zituen aurrerapen andiak chit. Frantziarekiko guda Taldeagintzakoan San Sebastián de la Muga-n zegoela biraldua izan zan Kataluniako martiztira.

Guda onetan egin izan zituen serbitzo andiak guztiz dira gomenda-garriak; Kol de Portelko bateria berak eragin ta agindu ere zeban Bellegarde errendatu arterañoeko guztian; Salzes-ko batallan irten zan gaizki eritua; Kol de Bañuls eta onen izeneko Erria artutzeko denporan berak agindu zeban sutunpadia: eta onen jakinduri ta bizitasunaren bidez irabazkidatu ziran Por-Bendre, San Telmoko gaztelua, eta Koliubreko plaza. Erregeren agindea etorri zitzaion igaro zedilla Asturias-a ekida berria muniziotegiteko Sargadelos-en ifintera, non iritsi ta illabete-garrengo, bere sasoirik oberenean ogei ta emeretzi urteko adiñean arki-

tzen zala, eriotzak mapatu zeban milla zazpi eun, laurogei ta amalau-  
garren urteko agorrillean; zeñaren serbitzo andiak igo izan zituzten  
goinengo mallara beraren Buruzariak, milla zazpi eun laurogei ta ama-  
laugarrengo Gazetak esaten dabe-enez; eta Errege biotz biguñak saristatu  
zeban seme argidotarrari zorzitzaionaz beraren ama maitea, eguneko  
amar erreal seinalatzen ziolarik bizi zan arte guztirako.

Oyarzungo Erriak seme argidotar anitz eman izan ditu. On Se-  
bastian de Lartaun Obispo de Kuzko izandu zan sansagratua bete jai-  
terriako Eliza San Esteban de Lartaun Protomartir-en izenekoan, zeña  
dagoen aipatu lenago.

On Franzisko Antonio Feloaga, Kalatraba-ko Zalduna, Senadore  
Napoles-koa, eta egitade Enchidirion juris controversi-ren Aurkillea,  
ceña moldizkidatu zan Madrillen milla seieun irurogei ta amabotsgarren  
urtean.

Kapitan Tristan de Ugarte, azaña andiak egin izan zituena, batez  
ere itsasoz. Erri onetako seme azkarrak egindako bizarria gogoangarriak  
andizkatzen ditu Garibay jakintiak zortzigarren liburuko ogei ta amar-  
garren kapituluan.

IZTUETA.



# GIPUZKOAKO GIZONAK

## XVII

Pasaya Donosti-aldecoan jaio zan on Blas de Lezo, Teniente Jeneral itsasokoa, zeñak, beste serbitzo balioso anitzen artean, ontzi ta jende bere agintekoakin egin izan zeban laguntza andia Kartajena Indiaetakoaren gordezkeran milla zazpieun berrogei ta bostgarren urtean, indar andiko Eskuadra Ingeles Almirante Bernon-en eskura zegoenaren kontra.

Jaun argidotar on Agustin de Lezo Arzobisporen Zaragozakoa, on Blas-en illoba; bere jaioterriko Elizari utzi ziozkan apaingarri ederrak beste gauza balioso askorekin

Ondarribiako seme argidotarren artean kontatzen dira on Kristobal de Rojas, Sandobal, Kapillau Karlos bostgarrenarena, Obispo Obiedo-ko, Badajozko-ko, eta Kordoba-koa, eta Arzobispo Sebillakoa, zeña egon zan Konzilio Trento-koan, eta Santidadearen aomenarekin ill zan milia bosteun ta laurogeigarren urtean.

Aita Maisu Irakasle Fr. Manuel de Kalatayud, Zistertarren ordenakoa Fitero-ko bakartegian, zeñaren egitade polemika eta kondairatarrak diraden ondo ezagunak; Machin de Arsu Jauregi ta eche Arsuakoaren jaun ta jabea, bere jakinduria andi gudarakoaren bidez ezagungarritua on Sancho el Sabio-ren denporan, zeñak saristatu eta ondratu ere izan zeban mesede asko ta eskutarmakin, non ikusten dan gaztelu urrezko bat gorriaren gañean goiko aldetik, eta beekotik ibai bat eta bost buru

epakiak, iru lorelis urrezko bere diñakoak gazteluaren gañean, eta ertzean zortzi biozkuta berde sinoplezkoak urrezko kanpoan dituela.

On Juan eta on Migel Ezkibel ezagungarrituak izan ziran Moluka, eta Manilas-ko Ugarteak berriro artu ziradenean. On Antonio de Ubi-Ila, markes Ribaskoa, Estaduko Konsejukoa, Sekretario Indietako despachu guztirakoan Felipe bostgarrenaren denporan. On Gabriel Jose de Zuloaga, Konde de Torre-alta, berezitu zan asko Benezuelako Probinziaren gordezkeran, non Gobernadore egon zan milla zazpieun berrogei ta bigarren urtean, Ingeles anitzen galgarri. Uri onetan izan dira beste seme asko, izen chikiagokoak badira ere, serbitzo andiak egin dituztenak leorreko martizti eta itsasoko armadaetan.

Orioko semeak ziran on Gabriel de Hoa, Sekretario Estadu ta Despachu Indiaetakoa; Irakasle Fr. Franzisko de Segurola Ganboa Arzobispo Zaragozako, San Agustin-en Ordenakoa; M. Fr. Jose de Urtezabel, Karmentarra, izkribaria, eta on Antonio de Arizaga, Almirante armada Errealekoa.

IZTUETA.



# GIPUZKOAKO GIZONAK

---

## XVIII

Tolosako Erriak gai guztietarako eman izan ditu seme argidetakurak ugari, eta oen artean aurrengo lekua betetzen dabena, eta izendatuena da Domenjon Gonzalez de Andia, Koronel Probinzia Gipuzkoakoa. Onek Inghaterrako Errege Eduardo laugarrena tropa lagungarriakin sokorritu izan xebanean, eta lanze estura larriko artan leialkiro serbitzatu izan zebalako saristatu zeban Prinzipe ark Jarretierako ordenaren señale ondra andikoakin, izan zitzan beretzat eta bere ondorengoentzat beti betiko ezagungarri, esaten daben bezala argi eta garbi milla laureun irurogei ta amaikagarren urteko abuztuko illaren ogeigarren egunean Eduardok emandako bitezarde batek, zeña kopiau zeban on Braulio de Laga jakintiak eche purubetar Andia, Irrarrazabal eta beste geiagoren sustrai pin garbiak argitaratzean. Enrike laugarren Gaztelakoak ere eman ziozkan fuero batzuben bere naitasuna iragarritzeko milla laureun irurogeita bostgarren urteko agorrillaren ogeigarren egunean, eta milla laureun irurogei ta zazpigarreneko garagarrillaren amarean, zeintzuben ontzat arturik Errege Fededunak eman ere ziozkaten Gipuzkoaren Batzarretako itzkribautza eta bertako Alkalde de Sakas izateko eskubidea, zeñean jarduera edo enpleo oek biak Erregezko gallaldiaren bidez gozatzen dituen gaurko egunean Probinziak, beraren fuero-etako liburuan ezarria dagoen bezela. Eduardo laugarren Errege Inghaterrakoarekin Gipuzkoaren artean egindako alkartzeta ta tratadu milla lau-

reun laurogei ta bigarren urtekoan, Probinziaren Eskribau fidel arkitzen zan bezala izandu zan balio andiko itzbide ari zuzenbidea ematen, Batzar bereko kapitulazioetan Rymer-ek esaten daben bezala. Probinziaren alde jarraitu zeban Aide nagusien kontra, oen genaste eta zegarrera kaltarkitsuak indarrean zeuden denporan; eta aurrengoetatik bat bera izan zan urgullutsu oen arrotasuna buruz beeratu zebana, zeñaren bidez izandu zan dunduriaturik andizkatua Erriko izkeran kantatzen ziotelarik onela.

Sagarra eder, gezatea  
Gerriyan ere ezpatea  
Domenjon Andia  
Gipuzkoako Erregia.

IZTUETA.

